

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera joan ahala, hainbat elkarterekin ibili beharko gara elkarlanean. Hauei funtsezko elkarteak deritze, atal honetan zeintzuk diren eta haiekin izango dugun harremana azalduko ditugu.



Gure elkarte nagusiak udaletxeak izango dira, hauekin elkarlanean arituko gara behin eta berriz, hauek izango baitira gure proiektua erosi eta horren truke soldata bat emango digutenak. Gure proiektua Euskal Herriko herri eta hiriei eskainiko diegu, eta beraz, herri eta hiri bakoitzeko udaleetxeekin jarri beharko dugu harremanetan. Lan zaila eta neketsua dirudien arren, uste dugu ideia hobea dela udaletxeak izatea gure zerbitzua ordaindu behar dutenak gurasoak izan beharrean, hauek saioetara dohainik etor daitezten; izan ere, saio hauek ordaindu behar balituzte gurasoek ez dugu uste nahi

adina pertsona etorriko liratekeenik, beraz, gure ustez ez da arazoa udaletxe bakoitzarekin hitz egitea honek onak ekarriko badizkigu.

Gainera, gure lan honek arrakasa izaten badu, baliteke guk sortuko dugun publizitateaz gain proiektua zabaltzea, eta ondorioz hainbat udalerrik gurekin kontaktuan jarri nahi izatea.

Horrez gain, herriko aretoekin ere elkarlanean arituko gara. Aretoak gure languneak izango direnez, honen ordutegia jakin beharko dugu, guk noiz erabili dezakegun jakiteko, ze ordutan irekitzen eta ixten den jakitea funtsezkoa baita. Orobat, bertako gailu elektronikoen beharra izango dugu, argia, soinua eta proiektorea eskuragarri jarri beharko dizkigute. Proiektorearen bidez, gaur egungo gazteen esperientzien bidez egingo dugun bideoa jarriko dugu, entzuten dituzten komentarioei buruz nola sentitzen diren gurasoei adierazteko.

Beste kontaktu garrantzitsu bat gure saioetako amaierako bideoetan agertu diren gazteak dira. Gazte hauek bideoan pertsona anonimoak izango dira, hau da, ez dute haien aurpegirik azaldu beharko. Nerabe hauek gure bideoetan agertzera animatzeko konfidantzazko pertsonak hautatuko genituzke. Oso gai sensibleak izanik eta profesionalak ez garen ez, gure lagun eta ezagunekin kontaktatuko genuke, haiekin gai hauez hitz egiteak elkarrekin konfidantza dugula kontuan izanda errazagoa egingo zaigulako, eta bide batez, gezurretan ari diren nerabeak saihestuko ditugu. Guztiz anonimoa izango dela azalduko diegu, eta haiek emandako informazioa konfidentzial izango dela esan.

Aitzitik, kontuak izanda nerabe hauek gure proiektuaren parte oso garrantzitsua direla, haien lana ordaindu egingo genuke. Gazteak izanda, askotan ez dakigu diru apur bat nondik lortu, eta diru-iturri bat lortzeko modu egokia dela iruditzen zaigu, eta nola ez, dirua irabaziko dutela kontuan izanda, lehenago animatuko dira.

Bestalde UGGASA elkartearekin ere hitz egin beharko dugu lokal bat izan nahi badugu. UGASSA, Urola Garaiko Garapenerako Agentzia da; elkarte honek enpresagintzan hasi diren talde berriei

lokalak eskeintzen dizkie, eta gu hasiberriak garenez, lokal bat primeran etortzen zaigu bertan elkartu eta enpresako zeinbait alderdi lantzeko. Lokalaren tarifa 90€koa da, eta Wifia, argindarra, elektrizitatea... bezalako kostuez ez gara kezkatu beharko, 90€ hauek biltzen baititu.

Bukatzeko eskero dugu elkarte hauen laguntzaz gure proiektua aurrera eramatea eta Euskal Herri mailan zabaltzea.